

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gaitasun ezberdinez osaturiko talde lan bat garela kontuan izanda, enpresa aurrera eramateko eginkizunak banatuko ditugu gure artean. Gure abileziak ikusi, eta gutxiek pentsatuko lukete haiek konbinatuz proiektu berdin batean lan egiteko gai izango garenik, baina denak biltzean, ikuspuntu ezberdinez osatutako talde indartsu bat sortzen dugu.

Endika izango da webgunearen zuzendari; hura sortzeaz, eguneratzeaz eta eskaeren berri emateaz arduratuko dena. Informatika munduan erabat murgilduta dagoenez, haren lana gustura eta ahalik eta hoberen egingo du. Ezin garrantzitsua iruditzen baitzaigu norbera bere postuan gustura egotea. Funtsezkoa da proiektua aurrera eta ongi eramateko.

Unai fundak muntatzen arituko da, bera baita taldeko trebeena. Mekanika lanetan ibilia da eta horrek abantaila ematen dio. Horrez gain, lanerako duen zehaztasuna itzela da, eta horrek ziurtasuna ematen digu lana aurrera eramateko orduan.



Diseinuak Miriamen esku egongo dira. Arte ederretan graduatua da eta doktoretza ateratzen ari da. Duen sormena argi ikus daiteke enpresaren logoan: begirada bakarrean marrak besterik ez dira ikusten, baina bertan gelditzen bazara, gure enpresaren izena ikus dezakegu era abstraktu batean adierazita.

Azkenik, Maria izango da beharreko material guztia biltzeaz arduratuko dena: bera joango da Sasietara materialen bila. Garraioan esperientzia du. Aldez aurretik taxi gidari bezala ibili da pare bat urtetan eta horrek abantaila ematen dio orientazioaren aldetik. Hori gutxi balitz, motor, autobus eta kamioi gidariaren karnetak ditu, abantaila izango direnak material kantitatearen arabera.

Lokal bat hartu dugu jada, eta hura izango da gure lantokia. Bertan beharreko material guztia bilduko dugu eta gainerako espazioa eremu ezberdinetan antolatuko dugu: diseinurako eremua, muntaketarakoa eta webgunearentzakoa. Bertan ere izango dugu diruaren kontrolerako gunea, non irabazi eta aurrezki guztiak kontrolatuko diren. Denborarekin leku txukunago batera igaroko gara, baina hori diru kantitate bat lortzean izango da, ez baitugu nahi dirua alferrik galdu.

Euskal Herriko Enpresa

